

Lanik gabe dauden edo lan hobia nahi duten gazteentzako 2017ko prestakuntza-beken deialdia egiteko Tokiko Gobernu Batzordeak 2017ko urriaren 19an hartutako erabakiaren laburpena.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluekin bat etorritik, deialdiaren laburpena argitaratu da. Testu osoa Diru Laguntzen Datu Base Nazionalean kontsultatu daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>).

Lehenengoa. Onuradunak: 1974ko urtarrilaren 1etik aurrera jaiotako pertsonak, baldin eta lizentziaturako, graduako, diplomaturako edo goi mailako heziketa-zikloko ikasketak badituzte, gutxienez 6 hilabete badaramate Amurrion erroldatuta, langabeak badira edo astean 20 ordutik gorako lan-jarduera ordaindurik egiten ez badute, Amurrio Bidean-ek antolatutako Hazilan prestakuntza-ekintzan parte hartu badute deialdiaren urtean, helburu bera edo antzekoa duen beste beka edo laguntzarik jasotzen ez badute eta baldintza guztiak agirien bidez egiaztatzen badituzte.

Bigarrena. Helburua: deialdi honen helburua da Amurrion bizi diren eta lanik gabe dauden edo lan hobia nahi duten gazteei lehia-araubidearen bitartez 12 prestakuntza-beka emateko prozesua arautzea, enpresetan lan egin dezaten edo tutore batekin bideragarritasun-plan bat egin dezaten.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak: Amurrioko Udaleko Osoko Bilkurak 2017ko uztailaren 27ko erabakiaren bidez onetsi zituen, eta eduki osoa urte bereko irailaren 27ko 111. ALHAOn argitaratu zen.

Laugarrena. Zenbatekoa: deialdi honetarako zuzkidura 38.400,00 eurokoa da.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea: hamar egun, deialdia ALHAO argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita.